# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2013IPLE0007
**Eguna:** 2013-07-29
**Ordua:** 19:00 – 19:40
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | EHBILDU |
| - Agin Rezola Laburu | EHBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBILDU |
| - Berta Arozena Bergara | EHBILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - Isabel Otero Glorie | EHBILDU |
| - Raul Redín Hernández | EHBILDU |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2013ko ekainaren 27ko akta onartzea** | **1** | Aprobación del acta de 27 de junio de 2013 |
| **Lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea** | **2** | Aprobación modificación RPT |
| **Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Herniko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, lurralde-garapeneko estrategien diseinuan gobernu-eredu berri bat eratzen laguntzeko, onartzea** | **3** | Aprobación del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Hernani para la contribuir a un nuevo modelo de gobierno en el diseño de estrategias de desarrollo territorial |
| **Informazioa, galdera eta eskariak** | **4** | Información, ruegos y preguntas |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1. 2013ko ekainaren 27ko aktaren onarpena**

Akta, aho batez, onartu da.

**1. Aprobación del acta de 27 de junio de 2.013**

El acta es aprobada por unanimidad.

**2. Lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea**

Pertsonal Batzorderen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

1.- 2013ko Lanpostu-Zerrenda aldatzea Ingurugiro eta Jarduera Teknikaria lanpostuan, formazioa atalean. Diplomatura jartzen duen lekuan "Nekazaritzako ingeniari teknikoa, Arkitekto teknikoa edo titulazio hauekin baliokidetasuna dutenak" jarri behar du.

2.- Espedientea 15 laneguneko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita.

Eskatzen den titulazioa eta lanpostuaren funtzioei buruz Zorione Etxezarraga zinegotziak hainbat galdera egin ditu. Eginiko galderei Alkateak erantzuten du.

Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko 7 botorekin (5 EHBildu eta 2 Hamaikabat) eta abstentzio batekin (EAJ/PNV).

**2. Aprobación modificación RPT**

Se remite para su aprobación el dictamen de la Comisión de personal, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Modificar la Relación de Puestos de Trabajo 2013, en lo relativo al puesto de Técnico de Medio Ambiente y Actividades en la Formación, donde dice Diplomatura debe decir "Ingeniero técnico agrícola, Arquitecto técnico" o equivalencias que se correspondan con estas titulaciones requeridas.

2.- Someter a información pública por el plazo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La concejal Zorione Etxezarraga formula distintas preguntas en relación a la titulación que se solicita y las funciones del puesto, que son contestadas por el alcalde.

Sometida a votación es aprobada con 7 votos a favor (5 EHBildu y 2 Hamaikabat) y una abstención (EAJ/PNV).

**3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, lurralde-garapeneko estrategien diseinuan gobernu-eredu berri bat eratzen laguntzeko, onartzea**

**3. Aprobación del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Hernani para contribuir a un nuevo modelo de gobierno en el diseño de estrategias de desarrollo territorial**

Pertsonal Batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la Comisión de personal, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Hernaniko Udalaren artean (Hernaniko Udala Buruntzaldeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaleen, ordezkari gisa) lankidetza hitzarmena lurralde garapeneko estrategien diseinuan gobernu eredu berri bat eratzen laguntzeko, onartzea.

Primero.- Aprobar el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Hernani, representante de los Ayuntamientos de Buruntzaldea (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil), para contribuir a un nuevo modelo de gobierno en el diseño de estrategias de desarrollo territorial.

Bigarrena.- Erabaki honen berri Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalei ematea.

Segundo.- Dar traslado del presente acuerdo a los Ayuntamientos de Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil.

Alkateak adierazi duenez, Foru Aldundiak igorri duen proposamenean diru-laguntza bat ematen zaio Hernaniko Udalari, udalak zentralizatuko baitu helburu horren garapen-bidea, eta hori horrela, Hernanik egingo ditu kontratazioak eta udal guztien ordezkaritza prest izango da lurralde-garapeneko gobernu-eredu berrian laguntzeko, eskualde-ikuspegia nagusi izango den lurralde-garapenaren barruan, eta, horrenbestez, eskualde-agentzia bat eratu ahalko da, eskualdean ez baita eratu oraindik halakorik.
Udalek proiektu horretan izango duten ordezkaritzari, kontratatzeko moduari eta diru-laguntzei dagokienez, zinegotziek egindako galderei erantzun die alkateak, ordezkaritza politikoa eta teknikoa izango dela adierazita, eta Hernanik bultzatuko duela proiektua, Hernaniko alkatea arduratuko delarik koordinazio orokorraz, eta, hori horrela, Hernaniko Udalak egingo ditu kontratazioak, udalak berak jasoko baitu diru-laguntza eskualde-proiektu hori egiteko.

Señala el alcalde que en la propuesta que remite Diputación se otorga una subvención al Ayuntamiento de Hernani, que es quien va a centralizar la puesta en desarrollo de este objetivo, de modo que las contrataciones las realizará Hernani y la representación de todos los Ayuntamientos estará presente en la determinación de contribuir al nuevo modelo de gobierno en el desarrollo territorial, donde prime la prespectiva comarcal, y pueda constituirse una agencia comarcal, que actualmente en esta zona está sin constituir.
En relación a la representación de los Ayuntamientos en este proyecto, el modo de contratar y las subvenciones, el alcalde contesta a las preguntas formuladas por los concejales, señalando que habrá representación política y técnica, y que el proyecto se impulsará desde Hernani, siendo el alcade de Hernani quien ostente la coordinación general, por lo que las contrataciones se realizarán por el ayuntamiento de Hernani que es quien percibirá la subvención para este proyecto comarcal.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak adierazi du aurreko legegintzaldian ere izan zela enpleguko eskualde-agentzia bat martxan jartzeko asmoa, baina alderdien arteko desadostasunek eragotzi zutela agentzia

El concejal Bixente Arrizabalaga señala que en la legislatura anterior ya hubo intención de poner en marcha una agencia comarcal de empleo, pero que

sortzea. Adierazi duenez, gustatzen zaizkion adierazpenak biltzen dira hitzarmenean, hala nola partaidetza-prozesua eta eskualde-garapenaren komenigarritasuna, eta ados dago horrekin guztiarekin, baina EHBilduk ez du partaidetza-prozesu horren praktika bete Atez Ateko Bilketaren kasuan, eta, horregatik, abstenitu egingo dira. Puntu hori azpimarratu du Imanol Lizarralde zinegotziak.

Bozkatu eta onartu egin da, aldeko 5 botorekin (EHBildu) eta 3 abstentziorekin (1 EAJ/PNV, 2 Hamaikabat), eta alkateak sinatuko du onartutako hitzarmena.

las desavenencias de los partidos imposibilitaron su creación. Señala que en el convenio se recogen declaraciones que le gustan como el proceso participativo y la conveniencia del desarrollo comarcal, con lo que está de acuerdo, pero la práctica de EHBildu con el proceso participativo no se ha cumplido con el PaP, por lo que se van a abstener. Incide en este punto el concejal Imanol Lizarralde.

Sometido a votación es aprobado con 5 votos a favor (EHBildu) y 3 abstenciones (1 EAJ/PNV, 2 Hamaikabat), quedando el alcalde para la firma del convenio aprobado.

## 4. Informazioa, galdera eta eskariak

Bixente Arrizabalagak adierazi duenez, Urumearen autobia egin aurretik bi irteera zeuden, horietako bat Martindegin, eta autobia egitearekin batera, desagertu egin da irteera hori. Auzokoek erreklamazioak egin zituzten, eta adierazi duenez, alkateak ez du ezer egin gai horren inguruan.

Alkateak erantzun du adieraziz gai hori aurreko legegintzaldikoa dela, baina bera pertsonalki hiru aldiz bildu dela Foru Aldundiarekin, eta haiek diotenez, horrelako errepideetan konexioak ez daude baimenduta 2 kilometro baino gutxiagoko distantzietan, eta, horrenbestez, Foru Aldundiak kendu egin zuen Martindegiko irteera.

## 4. Información, ruegos y preguntas

Bixente Arrizabalaga señala que antes de realizar la autovía del Urumea existían dos salidas, una en Martindegi, y con la construcción de dicha autovía esa salida se ha suprimido. Los vecinos realizaron reclamaciones, y señala que el alcalde no ha hecho nada con ese tema.

Contesta el alcalde señalando que es un tema de la legislatura anterior, pero que el personalmente ha estado reunido tres veces con la Diputación, y señalan que técnicamente en este tipo de carreteras no se permiten conexiones en distancias menores de 2 kilómetros, por lo que Diputación eliminó la salida de Martindegi.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2013ko uztailaren 29a

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**